



2018rako aurrekontua onartu du IGORREko udalak

Astelehenean, urtarrilak 23, Igorreko udaleko udalbatzak urte honetarako aurrekontuen proposamena onartu zuen EH Bilduko zinegotzien 6 aldeko bozkei esker.

2018 urterako aurrekontuak aurreko urtean baino 540.000 € gehiago izango dituzte. Batez ere, 3 faktorek eragin dute igoera hau. Batetik Udalkutxatik jasotakoa 310.000 € igo da, bestetik, aurreikusten diren obra pribatu batzuen zerga eta tasek 150.000 €tan igo dute aurreikuspena eta, azkenik, "boulderra" berreraikitze udaleko asegurutik 110.000 € jasotzea espero da. Guztira, 4.874.220 € takoa da 2018ko aurrekontua.

1. Kapitulan, pertsonalari dagokionean bukatzeaz dagoen Lanpostuen Zerrenda indarrean jartzen hasteko diru kopurua jarri da, harreran beste administrari bat jarriko delarik eta badaezpada, funtzionarioen %1eko igoera aurreikusi da 2018 urterako.
2. Kapitulan, zerbitzuen gastuetarako, hainbat igoera proposatu dira. Berdintasunerako jardueratan 3.000 eurotako igoera dago; ludoteka, udalekuak eta Haur eta gazteentzako jardueretarako 11.000 € gehiago jarri dira. Kirol jardueretarako 5.000 euro gehiago jarri dira, 94.000 €raino. Euskera normalizatzeko ere 4.000 € gehiago egongo dira guztira 43.000 € izango direlarik. Adinekoentzat jarduerak antolatzeko ere 26.000 € ezarri dira, aurreko urtean baino 6.000 € gehiago. Kultur etxetik kanpoko ekintza kulturaletarako ere 10.000 € gehiago jarri dira, guztira 47.000 €. Enplegua sustatzeko partidan 68.052 €rekin Behar bide proiektuari jarraipena emango zaio eta, horretaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako prestakuntza ikastaroak emango dira.
4. Kapitula. Elkarteei ematen zaizkien diru laguntza nominatiboak mantendu egingo dira orokorrean (Merkatariak, Jubilatuen Elkartea, Cáritas, Bizkaiko elikagaien bankua, Guraso elkarte ezberdinak...), hala ere, Jai batzordeari, aurreko urtean, modu nominatiboan emango zaio laguntza eta 5.000 € gehiago jasoko ditu, 59.600 € hain zuzen.
6. Kapitulan hainbat inbertsio egitea aurreikusten da. Herrian zehar hobekuntzak egiteko 326.359 € egongo dira. Erremanentearekin batera honako proiektu guzti hauek egiten ahaleginduko da Igorreko Udala, beti ere, baimen bereziek eta proiektuen zailtasunak berak zeintzuk egingo diren lehenengo baldintzatuko



duelarik. Hauetan estrategikoena Jubilatuen txokoaren atzealdean egin nahi den Gabolan aparkalekua izango da, 90 autorentzat lekua izango duena. Beste proiektu batzuen erredakzioak ere eginda edo otsailean entregatzekoak dira, adibidez: Erreka ondoko aisialdi gunea, Orbitik Arantzazura oinezkoen bidea, Lehendakari Agirreko interbentzio biak (Garben Arantzazurantz eta, bestalde, eleiza ondotik Renaultera bitartean), Gezalara oinezkoen bidea, Garakoiko erreka lanak eta Lasarte ondoko espaloia konpontzea, besteak beste.

Kirol instalakuntzetan ere, aurten, lan batzuk egiteko asmoa dago. "Boulderra" berreraikiko da eta kiroldegiko aldageletan berrikuntzen 2. fasea egingo dira.

7. Azkenik, berrikuntza moduan, gazteen lokalak legeztatze bidean, lokalen jabeen zuzenduko liratekeen dirulaguntzak emateko 5.000 eurotako partida jarri da. Gazteriako batzordean eztabaidatzeko dago oraindik laguntza hauek emateko ordenantza baina EAJ taldeak eskatuta ezarri da. Eztabaida hasi eta bere fruituak eman ditzakeelakoan.

IGORREN, 2018ko urtarrilaren 24an